— Zerbitzua erabiltzailea eraso fisiko, psikiko edo sexualetatik nahiz beste edozein motatako erasotik babesteko ematen bazaio. Kasu hauetan ez dira diru-sarrerak aintzat hartuko.

**11. artikulua.**—***Zerbitzuaren erabilerak eragindako gastuak***

Zerbitzua erabiltzen duten pertsonei egotz dakizkiekeen arrazoiengatik eragindako gastuen kasuan izan ezik, ohiko Komunitate gastuak eta lokalak konpondu edo hobetzekoak Udalaren kontura izango dira. Halaber, eraikina eduki edo erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa nahiz zerga guztiak ere Udalaren kontura izango dira, zabor bilketaren tasa barne.

Elektrizitate, gas eta ur gastuak ere Udalaren kontura izango dira. Baina, erabiltzaileek hornigai horiek neurriz gain kontsumitu ez ditzaten edo, jada kontsumitu badituzte, eragindako kalteei konponbidea emateko, Udalak egoki jotako bestelako neurriak hartu ahal izango ditu.

VII. KAPITULUA

**ADMINISTRAZIO BIDEKO KANPORATZE EKIMENA**

**12. artikulua.**—***Administrazio bideko kanporatze ekimena***

Araudi honetan jasotako arrazoiren batengatik nahiz epea amaitzeagatik, premiazko etxebizitza libre utzi behar duten erabiltzaileek etxetik irteten ez badira edo irteteari uko egiten badiote, Udalak behartu ahal izango ditu, administrazio bideko kanporatze ekimenaren bitartez, eta beti ere, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiko 120. artikuluan eta hurrengoetan edo hura ordezkatzen duten arauetan ezarritako jardunbideko izapideei jarraiki.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Arautegi honek xedatzen duenaren aurka egiten duen maila bereko edo txikiagoko bestelako edozein arau eta xedapen baliorik gabe geratzen da.

AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost eguneko epea igaro ondoren sartuko da indarrean.

1. Dok. Premiazko kasuetarako udal abegi-etxebizitzan sartzeko eskabidea.

2. Dok. Premiazko kasuetarako udal abegi-etxebizitzaren lagatze kontratatua.

Beraz; gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Batzarrak aho batez, ondoko erabakia hartu du:

1. Aurretik azaldu den «Premiazko kasuetarako Arantzazuko udal abegi-etxebizitzaren erregelamendua» izeneko Ordenantza behinik behin onartzea.

2. Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta egokitzat jotzen diren alegazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko jendaurreko 30 eguneko epea zabaltzea.

3. Epe horretan alegaziorik ez balego onartze ebazpen hau behin betiko onartutzat joko genuke.

Arantzazun, 2014ko apirilaren 8an.—Alkatea, María Begoña Llano Intxausti

(II-2368)

— Si el acogimiento se hace para proteger a una persona de posibles agresiones físicas, psíquicas, sexuales o de cualquier otra índole, independientemente de sus ingresos.

**Artículo 11.**—***Gastos derivados del uso del servicio***

Los gastos de comunidad, así como los de arreglos o mejoras de los locales correrán a cargo del Ayuntamiento excepto que estos estén motivados por razones imputables a las personas acogidas. Asimismo serán a cargo del Ayuntamiento las tasas o impuestos de cualquier tipo relacionados con la tenencia o uso del inmueble, incluida la tasa de recogida de basuras.

También serán a cargo del Ayuntamiento, los gastos de electricidad, gas y agua si bien aquel podrá tomar las medidas que entienda oportunas para evitar y, en su caso, subsanar los perjuicios derivados de un gasto abusivo de estos suministros por parte de las personas usuarias.

CAPÍTULO VII

**DESAHUCIO ADMINISTRATIVO**

**Artículo 12.**—***Desahucio administrativo***

En caso de que, por alguno de los motivos contemplados en este Reglamento o por finalización del plazo concedido, las personas que deban abandonar los pisos de emergencia se negaran a hacerlo podrán ser obligadas mediante desahucio administrativo siguiendo los trámites procedimentales previstos en los artículos 120 y siguientes del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales o normativa que le sustituya.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas todas las normas de igual o inferior rango en lo que contradigan o se opongan a lo dispuesto en este Reglamento.

DISPOSICIÓN FINAL

Este Reglamento entrará en vigor a los quince días de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Doc. 1: Solicitud de vivienda municipal de acogida de urgencia.

Doc. 2: Contrato de cesión de vivienda municipal de acogida de urgencia.

Por lo tanto, una vez analizado el tema, el Pleno ha adoptado por unanimidad, el siguiente acuerdo:

1. Aprobar inicialmente la Ordenanza «Reglamento de vivienda municipal de Arantzazu de acogida de urgencia» arriba dispuesta.

2. Publicar esta resolución en el «Boletín Oficial de Bizkaia», y abrir un período de exposición pública de 30 días, para presentar las alegaciones que correspondan.

3. Si en dicho plazo no se presentara alegación alguna, esta aprobación se considerará definitivamente adoptada.

En Arantzazu, a 8 de abril de 2014.—La Alcaldesa, doña María Begoña Llano Intxausti

(II-2368)

## Eako Udala

**Eako Hondartzako ordenantzaren behin betiko onarpena**

Eako Udalak 2014ko martxoaren 26an hasiera batez onartu zuen jakin batzuetan Eako hondartzako erabilera-araubidea eta jarduerak arautzen dituen udal ordenantzaren onartzea. Eta ondoren, akordioa jendaurrean jarrita, ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu epe barruan; beraz, aldaketa behin betiko onartutzat jotzen da, hala ezartzen baita Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikuluko c) idatz-zatian apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazketa berrian. Horiek horrela, adierazten da aipa-

## Ayuntamiento de Ea

**Aprobación definitiva Ordenanza Playas**

No habiéndose presentado reclamación alguna dentro del plazo de exposición al público del acuerdo de aprobación inicial de fecha 26 de marzo de 2014 de aprobación de la Ordenanza municipal reguladora del régimen Utilización y Usos de la playa de Ea dicho acuerdo queda elevado a definitivo de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49, letra c), de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, en la nueva redacción dada por la Ley 11/1999, de 21 de abril, significando que esta Ordenanza entrará

tutako aldaketa indarrean sartuko dela Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea amaitu eta hurrengo egunean, betiere epe hori testu osoa «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen denetik zenbatuta. Ordenantza behin betiko onartzearen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Aretoan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik 2 hilabeteko epearen barruan.

en vigor al día siguiente al en que termine el plazo previsto en el Artículo 65.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, contado desde la publicación de su texto completo en el «Boletín Oficial de Bizkaia» Contra la aprobación definitiva de la Ordenanza podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de 2 meses contados a partir del día siguiente a la publicación de este anuncio.

## EAKO HONDARTZAKO ERABILERA-ARAUBIDEA ETA JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

### ZIOEN AZALPENA

Eako hondartza, zalantzarik gabe, paisaiaren eta naturaren arloko baliabide garrantzitsuak eta udalerrira turismoa erakartzeko berebiziko elementua da. Hori dela eta, Eako kostaldeak, hareatzak dituzten hainbat eta hainbat udalerritan gertatzen den bezala, hondartzarako bidea hartzen duten bisitari asko eta asko jasotzen ditu, udan batik bat, baina urte osoan zehar ere, bai aisiaz gozatzeko, bai zenbait kirol jarduera egiteko.

Logikoa denez, Eako hondartzaren erabilera areagotu egin da nabarmen; hori dela eta, zeharo gomendagarria da udal mugartean ezarriko den arautegia onetsi eta, ondoren, aplikatzea, hondartza erabiltzen duten pertsonek zentzuz eta ingurune horrekiko modu bateragarrian balia ditzaten, halako moldez non hondartzan bizikidetza egokia eta ingurumenarekiko begirunerik handiena izatea bermatuko baita, ingurune hori ahula izaki, bereziki babestu behar delako.

Kostaldeei buruzko 1988ko uztailaren 28ko Legearen 3.1.b) artikuluak xedatutakoaren arabera, Eako udalerriko hondartza herriko, itsasoko, lurreko eta Estatu mailako jabariko ondasunak dira.

Kostaldeei buruzko 1988ko uztailaren 28ko Legearen 115 artikuluak finkatzen du Udalak honako eskumenak dituela herriko, itsasoko, lurreko eta Estatu mailako jabarian hondartzei dagokienez:

— Hondartza eta gainontzeko bainurako eremuak garbitasun, higieneeta osasungarritasun baldintza egokian mantentzea.

— Salbamendua eta giza bizitza segurtatzeko Estatuko Administrazioak emandako arau eta bideratzeak betetzea.

— Hala badagokio, Tokiko Araubidearen legeek aurreikusitako kudeaketa modu zuzen edo zeharkakoen bidez hondartzan koka daitezkeen denboraldiko zerbitzuak esplotatzea.

Udal Ordenantza honek Kostaldeei buruzko legeriak udalerri honi ematen dizkion eskumenak arautzeko joera dauka Eako hondartza baldintzarik onenetan mantentzeko.

Ordenantza honen bidez hondartzaren erabilera publikoa bermatu nahi da, erabilera orokor eta bereziak arautuz, eta baita honen segurtasun eta kontserbazio egokia ere.

Araudi honek Ean dagoen hondartza definitzen du eta, zaintza eta sorospen zerbitzuak, garbiketa eta bainu-baldintzak arautzen ditu. Aurrekoaz gain, urteko garaiaren arabera, hondartzan egindako kirol-ekintzak, arrantza eta eguzki-oihal eta kanpadenden jartzea arautzen ditu.

Era berean, hondartzan egin ezin diren ekintzak zehazten dira. Azkenik, zehapen-araubidea ezartzen da.

### I. TITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua.—*Xedea***

Ordenantza honen xede da Eako udalerriko itsasertzeko hondartzaren erabilera egokia arautzea. Horretan, bateratu egin nahi dira, batetik, guztiek hondartza gozatzeko duten eskubidea, eta, bestetik, Udalak, bere eskumenen esparruan, hondartza ondo erabil dadin zaintzeko duen betebeharra, bizi kalitatea babestu eta hobetzearren, eta ingurumena babestu eta lehengoratzearren.

## ORDENANZA REGULADORA DEL RÉGIMEN DE UTILIZACIÓN Y USOS DE LA PLAYA DE EA

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La playa de Ea constituye un activo paisajístico, un recurso natural y un atractivo turístico indudable. Por todo ello, la costa de Ea, tal y como ocurre en multitud de municipios que albergan arenales, es receptora de una importante masa de población que se acerca hasta la playa, fundamentalmente durante la época estival, pero también a lo largo de todo el año, tanto para disfrutar de su tiempo de ocio, como para la práctica de actividades deportivas.

La lógica intensificación del uso a que se someten la playa de Ea aconseja vivamente la aprobación y consiguiente aplicación de una normativa de ámbito municipal que haga posible, por parte de las personas usuarias de la playa, un uso racional y compatible de este medio, de forma que se garantiza una convivencia adecuada en la playa y un máximo respeto al medio ambiente en un entorno delicado y objeto de una especial protección.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 3.1.b) de la Ley de Costas, de 28 de julio de 1988, la playa de este término municipal de Ea constituye un bien de dominio público marítimo terrestre estatal.

El artículo 115 de la Ley de Costas, de 28 de julio de 1988 atribuye competencias municipales en el dominio público marítimo terrestre estatal que, en lo referente a playas, se concretan en:

— Mantener la playa y lugares públicos de baños en las debidas condiciones de limpieza, higiene y salubridad.

— Vigilar la observancia de las normas e instrucciones dictadas por la Administración del Estado sobre salvamento y seguridad de las vidas humanas.

— Explotar, en su caso, los servicios de temporada que puedan establecerse en la playa por cualquiera de las formas de gestión directa o indirecta previstas en la legislación de Régimen Local.

La presente Ordenanza Municipal tiende a regular el ejercicio de esas competencias que la legislación de Costas asigna a este municipio, en aras a mantener la playa de Ea en las mejores condiciones.

Se pretende con esta Ordenanza garantizar el uso público de la playa, regulando los usos generales y especiales, y asegurar la integridad y adecuada conservación de las mismas.

La presente normativa define la playa de Ea, regula los servicios de vigilancia y asistencia, la limpieza y la determinación de las condiciones de baño. Además de lo anterior, regula, en función de la época del año de que se trate, la realización de actividades deportivas en la playa, la pesca y la instalación de toldos y tiendas de campaña.

Igualmente se definen las actividades prohibidas en la playa, y finalmente se fija el régimen sancionador.

### TÍTULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1.—*Objeto***

La presente Ordenanza tiene por objeto regular el correcto uso de la playa del litoral del municipio de Ea conjugando, el derecho que todos tienen a disfrutar de la misma, con el deber que el Ayuntamiento, en el marco de sus competencias, tiene de velar por la utilización racional de la misma, con el fin de proteger y mejorar la calidad de vida y defender y restaurar el medio ambiente.

**2. artikulua.—*Aplikazio-eremua***

Ordenantza honek Eako hondartzan egin daitezkeen erabilera eta jarduera guztiei eragiten die. Betiere, kontuan hartu beharko dira beste Administrazio batzuek gai honetan dituzten eskumenak.

**3. artikulua.—*Lurralde-eremua***

Ordenantza honen edukia Eako udalerriko hondartzan izango da aplikagarri:

Are fin eta urre koloreko 120 metro luzeko hondartza da.

Eako itsasadarraren bokaleko ezkerraldean kokatzen da; Hegoaldetik Eako herrigunearekin mugatuta.

Bere ezaugarrien artean bereizgarriak dira:

— Itsaslabarren artean lurrerantz sartzen den itsas-mihiak izaera babestua ematen dio.

— Herrigunetik gertu egoteak eskaintzen duen irisgarritasuna; honek urte guztian erraz erabili ahal izatea baimentzen du.

— Bainuarekin erlazionatutako segurtasuna eta honek haurren zaintza-kontrolerako eskaintzen duen erraztasuna.

— Mareen eraginez sortzen den paisaiaren dibertsitatea, Ekialdean portu txikiaren gertutasunagatik eta Kaibideko paseoagatik eta Mendebaldean natura paisaia.

— Bere etxeko edo gertuko izaera eskaintzen dion eskala txikia eta babestua.

## II. TITULUA

## HONDARTZA ERABILTZEKO ARAUAK

**4. artikulua.—*Erabilera komun orokorra***

1. Hondartzaren erabilera librea, publikoa eta doakoa izango da, hondartzaren izaerarekin bat datozen erabilera arruntak egiteko eta legeekin, arautegiekin eta honako ordenantza honekin bat etorriz egiten direnak.

2. Intentsitate, arrisku edo errentagarritasun ezaugarri bereziak dituzten erabilerak eta obrak eta instalazioak behar dituztenak ezingo dira egin; salbu erreserba, esleipena, baimena edota lagapena baldin badute. Horrelakoetan, Kostaldeei buruzko Legean xedatutakoari men egin beharko zaio, bai eta beste lege berezi batzuetan xedatutakoari, halakorik izanez gero. Ezingo da batere eskubiderik alegatu, usukapioa dela eta, edozein dela ere igarotako denbora.

**5. artikulua.—*Bainularien segurtasuna***

1. Zaintza eta laguntza zerbitzuak urtero udan egingo dira, oro har, ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean. Hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiak, beharrezkotzat jotzen badu, udaldi bakoitzeko data ofizialak finkatuko ditu.

2. Bainu-denboraldiaren hasiera eta amaiera garaiz jakinaraziko da.

3. Eako hondartzako zaintza eta laguntza zerbitzuek ordutegi jakin bat beteko dute, aldez aurretik iragarriko dena.

4. Ordutegi horretatik kanpo, bainatu nahi duten pertsonek beren erantzukizupean egingo dute.

5. Itsasoaren egoera eta uraren osasun-baldintzak kontuan izanda, Osasun Sailak ezarritako jarraibideen arabera, hondartzetako zaintza eta laguntza zerbitzuek adierazi beharko diete Udalari eta Bizkaiko Foru Aldundiari bainua baimenduta dagoen ala ez, bai eta bainulariak noraino urrutira daitezkeen ere.

6. Itsasoaren egoera eta uraren kalitatea kontuan hartuta, hondartzako zaintza eta laguntza zerbitzuek itsas-bainuen egokitasuna adierazteko ondokoa jarriko dute:

**Artículo 2.—*Ámbito de aplicación***

Esta Ordenanza afecta a todos los usos y actividades susceptibles de ser realizadas en la playa de Ea, sin menoscabo de las competencias de otras Administraciones en la materia.

**Artículo 3.—*Ámbito territorial***

El contenido de la presente Ordenanza será de aplicación en la playa de Ea.

Es una playa de arena fina y dorada, de 120 m de longitud.

Se sitúa en la margen izquierda de la desembocadura de la ría de Ea; limitando por el Sur con el casco urbano de Ea.

Entre sus características destacan:

— Su carácter protegido, por tratarse de una lengua de mar que se introduce en tierra flanqueada por el terreno acantilado.

— Su accesibilidad urbana, derivada de la proximidad del casco; que hacen de ella un espacio libre perfectamente utilizable todo el año.

— Su seguridad, para las actividades relacionadas con el baño y las facilidades para el cuidado-control infantil.

— Su diversidad paisajística, por los cambios de su percepción con la marea y la proximidad del pequeño puerto y paseo Kaibidea, en su lado Este, y su imagen natural, en su lado Oeste.

— Su escala pequeña y recogida, que le confieren un bonito aire doméstico y familiar.

## TÍTULO II

## NORMAS DE USO DE LA PLAYA

**Artículo 4.—*Uso común general***

1. La utilización de la playa será libre, pública y gratuita para los usos comunes y acordes con la naturaleza de aquellas y que se realicen de acuerdo con las leyes, reglamentos, así como la presente Ordenanza.

2. Los usos que tengan especiales circunstancias de intensidad, peligrosidad o rentabilidad y los que requieran la ejecución de obras e instalaciones sólo podrán ampararse en la existencia de reserva, adscripción, autorización y concesión, con sujeción a lo previsto en la Ley de Costas, y en otras especiales, en su caso, sin que pueda invocarse derecho alguno en virtud de usucapión, cualquiera que sea el tiempo transcurrido.

**Artículo 5.—*Seguridad de los bañistas***

1. Los servicios de vigilancia y asistencia se prestarán durante la temporada estival de cada año, que con carácter general abarca todos los días comprendidos entre el 1 de junio y el 30 de septiembre. No obstante lo anterior, La Diputación Foral de Bizkaia determinará, si lo estima oportuno, las fechas oficiales de cada temporada estival.

2. El inicio y fin de la temporada de baños se anunciará oportunamente.

3. Los servicios de vigilancia y asistencia en la playa de Ea cumplirán un horario determinado oportunamente anunciado.

4. Fuera de dicho horario las personas que deseen bañarse lo harán bajo su exclusiva responsabilidad.

5. Corresponde a los servicios de vigilancia y asistencia en la playa señalar al Ayuntamiento y a la Diputación Foral de Bizkaia si el estado de la mar o las condiciones sanitarias del agua, según las pautas establecidas por el Departamento de Sanidad, permiten o no la toma de baños, así como las distancias máximas a las que pueden llegar los bañistas.

6. Los servicios de vigilancia y asistencia en la playa, para indicar la procedencia o no de los baños en función del estado de la mar y la calidad del agua colocarán:

a) Koloreetako banderak, honako esanahiekin:

— Bandera gorria: Bainua debekatuta.

— Bandera horia: Arretaz bainatu.

— Bandera berdea: Bainu librea.

b) Kartelak, honako oharrekin:

— Bainua: «Librea».

— Bainua: «Arretaz».

— Bainua: «Debekatuta».

7. Bainulariek Salbamendu eta Sorospen zerbitzuek segurtasunaren alde eman ditzaketen orientabide eta argibideak errespetatu beharko dituzte, bai eta erakunde eskudunek jada emandako edo gerora eman ditzaketen xedapenak ere.

8. Bainu-denboralditik kanpora edo Salbamendu eta Sorospen zerbitzuetarako ezarritako ordutegitik kanpora bainatu nahi dutenek, euren ardurapean egingo dute, ez beste inorenean.

9. Orobat, nahiz eta bainu-denboraldian edo Salbamendu eta Sorospen zerbitzuetarako ezarritako ordutegian bainatu, beren ardurapean bainatuko dira, eta ez beste inorenean, baldin eta honela bainatzen badira:

a) Salbamendu eta Sorospen zerbitzuen ohar eta jarraibideei jarraitu gabe.

b) Bainatzeko balizatuta dauden guneetatik edo banderekin bainatzeko zonatzat seinaleztatuta dauden guneetatik kanpora.

10. Elbarritasun edo gaixotasunen bat izanda, bainatzeak arriskuren bat dakarkien pertsonei, gomendatzen zaie horren berri eman diezaietela Salbamendu eta Sorospen zerbitzuei. Horrela, zerbitzu horiek neurri egokiak hartuko dituzte, behar izanez gero.

**6. artikulua.—*Kirolak***

1. Arau orokorra

Hondartzan kirol jakin batzuk egin ahal izango dira, jarduera horrek pertsonentzat arriskurik edo arazorik sortzen ez badu eta bainurako mugatuta dauden guneetarako sarbidean traba egiten ez bada, betiere gune erabilgarriak horretarako bide ematen badu.

Udalak hondartzan jarduerak antolatu ahal izateko guneak mugatzeko eskubidea izango du.

2. Lurreko kirolak

a) *Udan*

1. Itsasbeheran, hondartzan zaintza eta laguntza zerbitzuak jardunean daudenean, hondarretan kirola egin ahal izango da.

2. Itsasgoran debekatuta dago kirolik egitea (futbol, pilota, pala, etab.), horiek egiteko berariaz mugatutako eremurik ez badago.

3. Zaintza eta laguntza zerbitzuak behin amaituta, arau orokorra aplikatuko da.

4. Ezin izango dira egin soka, aingura edo beste edozein motatako amarradurarik behar duten kirolak, ez eta trakzio mekanikozko edo abereek tiratutako kirolak ere. Modu berean, ezin izango dira jaurtiketa-jarduerak egin (barra, xabalina, diskoa, golf etab.).

b) *Gainerako urtaroetan*

Arau orokorra aplikatuko da.

3. Ur kirolak

a) *Udan*

Ekintzak, kasu guztietan, itsasorako sarrera eta irteerak izan ezik, bainatzen ari direnengandik gutxienez 20 metrora egin beharko dira.

a) Banderas con los siguientes colores y significados:

— Bandera roja: Baño prohibido.

— Bandera amarilla: Baño con precaución.

— Bandera verde: Baño libre.

b) Carteles con las siguientes indicaciones.

— Baño: «Libre».

— Baño: «Con precaución».

— Baño: «No apto».

7. El público bañista queda obligado a seguir las orientaciones e indicaciones que por seguridad puedan realizar los servicios de Salvamento y Socorrismo, así como cuantas disposiciones existentes o que puedan dictarse en lo sucesivo por los organismos competentes.

8. Las personas que deseen bañarse, fuera de la temporada de baño o fuera del horario establecido para los servicios de Salvamento y Socorrismo, lo harán bajo su exclusiva responsabilidad.

9. También lo harán bajo su exclusiva responsabilidad, aun bañándose dentro de la temporada de baño y dentro del horario establecido para los servicios de Salvamento y Socorrismo, siempre que lo hagan:

a) Sin seguir las orientaciones e indicaciones de los servicios de Salvamento y Socorrismo.

b) Fuera de las zonas balizadas para el baño o señalizadas como tal mediante banderas.

10. Se recomienda a las personas con algún tipo de discapacidad o enfermedad que deseen bañarse y para las que el baño pueda constituir algún riesgo a poner esta circunstancia en conocimiento de los Servicios de Salvamento y Socorrismo, a efectos de que dichos servicios adopten, en su caso, las medidas pertinentes.

**Artículo 6.—*Deportes***

1. Norma general

Se podrán practicar determinados deportes en la playa siempre que la actividad realizada no suponga riesgo o molestias para las personas y no se dificulte, en su caso, el acceso a las zonas acotadas para el baño y el espacio libre disponible lo permita.

El Ayuntamiento se reserva el derecho de acotar espacios para poder organizar actividades en la playa.

2. Deportes en tierra

a) *Temporada estival*

1. Con marea baja, mientras la playa cuente con los servicios de vigilancia y asistencia en activo, se podrán realizar prácticas deportivas en la arena.

2. Con marea alta queda prohibida la práctica de juegos deportivos (fútbol, pelota, pala, etc.) a lo largo de toda la playa si no existe zona delimitada para los mismos.

3. Una vez finalizados los servicios de vigilancia y asistencia se aplicará la norma general.

4. No está permitida práctica de deportes que para su desarrollo precisen de cuerdas, anclajes o cualquier otro tipo de amarre, ni los de tracción mecánica o animal, así como, actividades de lanzamiento (barra, jabalina, disco, golf y/o similar etc.).

b) *Resto del año*

Se aplicará la norma general.

3. Deportes acuáticos:

a) *Temporada estival*

Las actividades, en su caso, deberán realizarse, salvo para la entrada y salida al mar, guardando una distancia en relación a los bañistas de más de 20 m..

b) *Gainerako urtaroetan*

Motor gabeko uretako kirolak hondartza osoan egin ahal izango dira, prebentzio eta segurtasun neurriak hartuta eta bestelako jarduerei traba egin barik.

4. AIRE-LUR-UR KIROLAK

a) *Udan*

1. Ezingo dira egin haizeak mugiarazteko soka, aingura edo amarradurarik behar duten kirolak eta jarduerak, hala nola parapenteak, jausgailuak, kometak, etab.

2. Berariaz debekatuta daude motordun parapenteen hegaldiak.

b) *Gainerako urtaroetan*

Motordun parapenteen hegaldiak galarazita daude.

**7. artikulua.—*Arrantza***

1. Udan, lurretik egiten den ur-azaleko kirol-arrantza gaueko 21:30etik hurrengo eguneko 8:30era bitartean egin ahal izango da harean.

2. Ezingo da administrazioak baimendu gabeko arrantza-aparailu edo tresnarik erabili. Hondartzan debekatuta dago tresa, pantxera, amu, etab. bezalako arrantza-aparailurik jartzea.

**8. artikulua.—*Animaliak***

Maiatzaren 1etik urriaren 31ra bitartean (biak barne), debekatuta dago hondartzara edozein motatako animaliak sartzea, bai eta bertan egotea ere. Hori, hala ere, ez da eragozpen izango itsutxakurrei buruzko azaroaren 21eko 17/1997 Legeak ezarritakoa betetzeko.

**9. artikulua.—*Eguzki-oihalak eta kanpadendak***

1. Eguzkitakoak jartzea baimenduta dago, beste erabiltzaileak molestatzen ez badituzte eta segurtasun nahikoaz harean sartuta badaude, batez ere haizea dabilen egunetan. Haize handia dabilenean, kendu egin beharko dira.

2. Partikularrek ezin izango dute eguzki-oihalik jarri. Bidezko emakida eta Udalaren baimena dutenak bakarrik jarri ahal izango dira.

3. Galarazita dago hondartza osoan kanpadenda edo antzekoak jartzea, bai eta kanpamendu edo kanpaldirik egitea ere.

**10. artikulua.—*Aldi baterako aparteko jarduerak***

1. Hondartzan, aldi baterako aparteko jarduera edo instalaziotzat jotzen dira honako hauek: jardueraren izaeragatik, ohiz kanpo egiten direnak, egun eta toki jakin batean.

2. Eako hondartan aldi baterako aparteko jarduera edo instalazioa egiteko, beharrezkoa da Udalaren administrazio baimena lortzea. Gainera, daitekeena da Probintziako Kosta Zerbitzuaren edota gai horretan eskumena duen beste Administrazio baten baimena ere behar izatea.

3. Apartekotzat jotako edozein jarduera egin nahi duen edonork, idatziz eskatu behar du. Eskaera idatzia, gutxienez ere jarduera egin baino 45 egun lehenago aurkeztu behar da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (30/1992 Legea) xedatutako bideetako edozein erabilita.

4. Aparteko jarduera baimendu aurretik, berme bat eratu beharko da. Berme horren zenbatekoak nahikoa izan behar du, behar izanez gero, jarduera egiteak eragin ditzakeen garbitze-lan bereziak ordaintzeko eta hondatzen den hondartzetako materiala ordezkatzea ordaintzeko.

b) *Resto del año*

Se pueden practicar, guardando las debidas medidas de prevención y seguridad y sin interferir con sus usos los de otras actividades, deportes acuáticos no motorizados, a lo largo de toda la playa.

4. DEPORTES AÉREOS-TIERRA-MAR

a) *Temporada estival*

1. La práctica de deportes y actividades que precisan de cuerdas y anclajes o amarres para ser arrastrados por el viento, tales como parapentes, paracaídas, cometas, etc., no se podrán realizar.

2. Queda expresamente prohibido el vuelo de parapentes a motor.

b) *Resto del año*

Se prohíbe el vuelo de parapentes a motor.

**Artículo 7.—*Pesca***

1. Durante la temporada estival, la pesca deportiva de superficie que se practica desde tierra se podrá practicar entre las 21:30 horas y 8:30 horas del día siguiente en la zona de arena.

2. No podrán ser utilizadas las artes o aparejos de pesca que no estén autorizados administrativamente, quedando prohibida la colocación en la playa de artes de pesca como tresas, pancheras, anzuelos, etc.

**Artículo 8.—*Animales***

Se prohíbe la entrada y permanencia de todo tipo de animales en el periodo comprendido entre el 1 de mayo y el 31 de octubre, ambos inclusive, sin perjuicio de lo establecido en la Ley 17/1997, de 21 de noviembre, de Perros Guía.

**Artículo 9.—*Toldos y tiendas de campaña***

1. Está permitida la instalación de sombrillas, siempre en condiciones que no molesten al resto de personas usuarias y anclados con seguridad suficiente, especialmente los días de brisa. Con viento fuerte, tendrán que ser desmontadas.

2. No estará permitido la instalación de toldos por particulares; solamente podrán instalarse los que tengan la concesión pertinente y permiso municipal.

3. Queda prohibido instalar tiendas de campaña o similares en toda la extensión de la playa, así como los campamentos o acampadas.

**Artículo 10.—*Actividades temporales extraordinarias***

1. Se consideran actividades o instalaciones temporales extraordinarias en la playa aquellas que, de acuerdo con la naturaleza de la actividad, se realicen de manera ocasional, con fecha y espacio determinado.

2. La realización de cualquier actividad o instalación temporal extraordinaria en la playa de Ea quedará sujeta a la obtención de autorización administrativa municipal, sin perjuicio de la autorización del Servicio Provincial de Costas u otra Administración con competencia en la materia referida.

3. La persona interesada en efectuar cualquier actividad calificada como extraordinaria deberá solicitarla mediante escrito presentado, como mínimo con 45 días de antelación a la celebración del evento, por cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4. Con carácter previo a la autorización de la actividad extraordinaria, se deberá constituir una garantía por importe suficiente para responder, en su caso, tanto de los trabajos extraordinarios de limpieza que pueda generar la realización de la actividad, como la reposición del material de playas que pueda resultar dañado.

**11. artikulua.**—*Erabilera debekatuak*

Ordenantza honetako artikuluetan xedatutako debekuez gain, hondartzan honakoak debekatuko dira:

a) Hondartzako pasabide eta sarreretatik zehar igarotzea zailtzen duten aulkiak, bankuak edo bestelako objektuak jartzea, bai eta pasabideetan etzatea edo gelditzea.

b) Hondartzan janaria prestatzea, hura prestatzeko edozein su motaren beharra badago (su txikiak, kanping-gasak, etab.).

c) Hondartzan jateko mahaiak edo hauek ordezkatzen dituzten oholtzak erabiltzea.

d) Sua egitea, suak piztea, parrillak, barbakoak edo antzekoak erabiltzea.

e) Garbiketa-zerbitzuen ohiko beharrak oztopatzea edo galaraztea.

f) Hondartza gaua igarotzeko, bai eta batzarrak, jaiak edo ordena publikoa asaldatzen duten jarduerak antolatzeko erabiltzea.

g) Aparkatzea, hondartzara edozein ibilgailu mota jaistea edo horrekin zirkulatzea, baimendutako zerbitzuak, salbamendua, sorospena, garbiketa, etab. salbu.

h) Publizitatea egitea horma irudien edo panelen bidez, edota soinuzko nahiz ikus-entzunezko bitartekoen bidez. Publizitatearen debeku hau aplikagarria da, edozein dela ere hedatzeko bidea edo kokalekua. Behar bezala baimendutako aparteko gertakizunen kasuan, baimenean zehaztutako baldintzetan egin ahal izango da publizitatea.

